



EBAZPENA, 2007KO EKAINAREN 12KOA, HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILEKO LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIARENA. HONEN BIDEZ DEIA EGITEN DA ZENBAIT LANPOSTU 2007-2008 IKASTURTEAN ZERBITZU-EGINKIZUNETAN BETETZEKO. LANPOSTUOK LURRALDE-ZENTROETAN DAUDE ETA OSPITALETAN ETA ETXEETAN HEZKUNTZA-ZERBITZUA EMATEKO DIRA, BAITA HEZKUNTZA- ETA TERAPIA-ARRETAZ ARDURATZEKO ERE.

Deialdi honen helburua da zerbitzu-eginkizunen araubidean edo, lan-kontratuko langile finkoen kasuan, aldi baterako atxikipenean betetzea lanpostu batzuk, ospitale-inguruneke irakasle-zerbitzuak emateko.

Ospitaleko eta etxeko eskola-zerbitzuaren eta hezkuntza- eta terapia-arretaren helburu nagusia da derrigorrezko eskolatze-adinean dauden ikasleek bere hezkuntza-prozesuarekiko lotura edo atxikimenduari eutsi eta garapena eman diezaiotela, euren ikastetxeetara joan ezinik badaude ere, ospitalean edo etxean daudelako edo jokabide-arazoak dituztelako. Hezkuntza-prozesu malgua taxutu nahi da, inguruabarrei egokitua, dinamikoa eta sortzailea, ikaslea, familia eta ikastetxea eta ospitale-/mediku-ingurunea elkarrekin lotuko dituen. Alderdi afektiboak, psikologikoak eta ikaskuntzakoak hartuko dira kontuan, eta beharrezko baliabideak sustatuko dira, ikaslea bere susperraldi edo sendatze-prozesuan eraginkor aritu dadin.

Lanpostuak betetzeko aparteko eratzat taxuturik dago zerbitzu-eginkizuna. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak -azaroaren 7ko 16/1997 Legearen bidez aldatuak- 54. artikuluan arautzen du hori eta, osagarri gisa, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuak ere bai, Araudi Orokorra onartu baitu Langileak Estatuko Administrazio Orokorren zerbitzura sartzea eta Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen lanpostuak betetzea eta lanbide-igoera erregulatzea.

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 16eko 222/2001 Dekretuaren 10. artikulua xedatutakoa kontuan izanik, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Xedea.

Deialdi honen xedea hau da: zerbitzu-eginkizunen araubidean edo, lan-kontratuko langile finkoen kasuan, aldi baterako atxikipenean betetzea lanpostu hauek:

Helbidea:

KODEA Lanpostua	IKASTETXEA HERRIA	Lanpostu- kopurua	Kidegoa	Betebeharrak
ADI1	Arabako CDTEA – Alava.	1	A/B	Psicologia, Pedagogia,Psicopedagogiako lizentziatura
BDI1	Bizkaiko CDTEA – Bizkaia	1	A/B	Psicologia, Pedagogia,Psicopedagogiako lizentziatura
GDI1	Gipuzkoako CDTEA- Gipuzkoa	1	A/B	Psicologia, Pedagogia,Psicopedagogiako lizentziatura



Ospitaleko ikasgelak:

KODEA Lanpostua	IKASTETXEA HERRIA	Lanpostu-kopurua	Kidegoa
*BH4	Bizkaiko CDTEA -Bizkaia	1	B
GH2	Gipuzkoako CDTEA- Gipuzkoa	1	B

* Lanpostu hutsa, titularrak erretiroa hartzen duelako 2007/09/01ean, titularrak uko egiten ez badu behintzat.

Etxeko zerbitzua:

KODEA Lanpostua	IKASTETXEA HERRIA	Lanpostu-kopurua	Kidegoa
GD2	Gipuzkoako CDTEA- Gipuzkoa	1	B

Terapia- eta hezkuntza-arreta

KODEA Lanpostua	IKASTETXEA HERRIA	Lanpostu-kopurua	Kidegoa	Betebeharrak
ATE2	Arabako CDTEA - Alava.	1	B	PT
ATE3	Arabako CDTEA - Alava	1	B	PT
BTE4	Bizkaiko CDTEA - Bizkaia	1	B	PT
GTE2	Gipuzkoako CDTEA- Gipuzkoa	1	B	PT
GTE3	Gipuzkoako CDTEA- Gipuzkoa	1	B	PT

Bigarrena.- Eskatzaileak eta betekizunak

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute euskal hezkuntza-administrazio publikoko irakasleek, bai karrerako funtzionarioek, baita mugagabeko lan kontratadunek ere. Izangaiek 2. hizkuntza-eskakizuna eduki beharko dute.

Hirugarrena.- Eskabideak eta horiek aurkezteko epeak.

Deitzen diren zerbitzu-eginkizunak eskatu nahi dituzten langileek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketa zuzendariarentzako eskabidea (II. eranskina) aurkeztu beharko dute, Hezkuntzako lurralde ordezkarietzan, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatuak) 38. artikuluan aipatutako edozein erregistrotan. Eskabideekin batera, eskatutakoa betetzen dela eta alegatzen diren merezimenduak egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko dira (jatorrizko dokumentazioa edo behar bezala konpultsatua), **beranduez 2007ko ekainaren 19an (hau barne).**

Laugarrena.- Balorazio-batzorde teknikoa.

Langileria Kudeatzeko zuzendariak ebatziko ditu zerbitzu-eginkizunak, honako kide hauek izango dituzten lurralde-batzordeek proposamena egin ondoren:

- Hezkuntzako lurralde-ordezkarria edo haren ordezkaria.
- Hezkuntza Berriztatze lurralde arduraduna edo haren ordezkaria
- Baliabideen lurralde-arduraduna edo haren ordezkaria.
- Hezkuntza Bereziko zerbitzu-burua edo haren ordezkaria.
- Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoko ikuskatzaile nagusia edo haren ordezkaria.
- Langileriaren Saileko funtzionario bat, idazkari arituko dena.

Era berean, irakaskuntzan ordezkariaren nahikoa duen sindikatu bakoitzeko ordezkari bat izango da batzordean.



Bosgarrena.- Merezimenduen baremoa.

Izangaien merezimenduak deialdi honetako I. eranskinean argitaratutako baremoaren arabera neurtuko dira.

Seigarrena.- Behin-behineko ebazpena eta erreklamazioak egiteko epea

Izangaiek deialdi honetako betebeharrak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, eta merezimenduak barematu eta gero, Langileriaren Kudeaketa zuzendariak deialdiaren behin-behineko ebazpena jarriko du jendaurrean, Hezkuntzako lurralde ordezkarietako iragarki-oholetan; halaber, erreklamazioak egiteko hiru egun balioduneko epea zabalduko da.

Zazpigarrena.- Behin betiko ebazpena.

Aurkeztutako erreklamazioak aztertu ondoren, batzordeak Langileriaren Kudeaketa zuzendariari helaraziko dio deialdi honen ebazpen-proposamena. Horrekin batera, honako hauek ere helaraziko dizkio: behin betiko akta edo aktak, izangai bakoitzaren merezimenduei emandako balioespenak jasotzen dituen, eta hautatuen azken zerrenda, baita, hala bada, kanpoan geratu diren ere, kanpo uztearen arrazoiak ere azalduz.

Langileria Kudeatzeko zuzendariak zerbitzu-eginkizunei buruzko behin betiko ebazpena emango du, eta Hezkuntzako lurralde-ordezkarietako iragarki-oholetan argitaratuko da.

Behin betiko ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, ebazpena argitaratu eta hilabeteko epean.

Zortzigarrena.- Ordainsariak.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak tutore-lanpostuari dagozkion lansariak ordainduko dizkie hautatutako izangaiei.

Bederatzigarrena.- Administrazio-egoera.

Hautatutako karrerako funtzionarioei zerbitzu-eginkizunak emango zaizkie aipatu lanpostuak 2007/2008 ikasturtean betetzeko. Lan kontratudunak izatekotan, lanpostu horiek betetzeko aldi baterako atxikipena egingo zaie (2007/2008 ikasturtean).

Hamargarrena.- Zerbitzu-eginkizunak esleituta dituzten pertsonak praktiketako funtzionario izendatzen badituzte, eginkizunok indargabetu egingo zaizkie. Zerbitzu-eginkizunok bakar-bakarrik mantenduko dira zerbitzu-eginkizunen lanpostuaren espezialitatea bat badator praktiken espezialitatearekin.

Hamaikagarrena.- Luzapena

2007/2008 ikasturterako ematen diren zerbitzu-eginkizunak hurrengo ikasturteetarako ere luza daitezke, egindako jarraipenaren eta ebaluazioaren arabera, eta lanpostuak behin betiko betetzen ez badira.



Hamabigarrena.- Ordezko araubidea

Ebazpen honek araupetzen ez duenari dagokionez, prozedura mailako aplikazio osagarri gisa Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua, erabiliko da.

ERREKURTSOAK

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen -urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatuaren- 114. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka gorako errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari; hilabete bateko epea izango da horretarako, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko ekainaren 12a.

LANGILERIAREN KUDEAKDETA ZUZENDARIA
Itziar GARAIZAR AGIRRE



I. ERANSKINA

1.- TITULAZIOAK (gehienez 1,5 puntu)

- Lanpostuarekin zerikusia duten beste lizentziatura batzuk: Psikologia, Pedagogia, Psicopedagogia (0,5 puntu).
- Lanpostuarekin zerikusia duten beste unibertsitate-diploma batzuk: 0,5 puntu.
- Egokitzapenak Entzumen eta Hizkuntzan,; 0,5 puntu.

2.- PRESTAKUNTZA (10 orduko edo 10 ordutik gorako ikastaroak baino ez dira baloratuko: 10 ordu duen ikastaroko 0,10 puntu, eta gehienez ere 2 puntu).

- a). Trebakuntza-ikastaroak: aisialdiko zuzendaria, aisialdiko monitorea, kaleko hezitzailea, animatzaile soziokulturala, buru-osasuneko masterra eta lanpostuarekin zerikusia duten beste batzuk: 0,5 puntu.
- b). Berariazko prestakuntza. Ikastaro hauek baloratuko dira: komunikazioa, gizarte-trebetasunak, jokabidea aldatzeko teknikak, emozioak kontrolatzeko teknikak, autokontrola, talde-dinamika eta abar: 0,5 puntu.
- c). Bestelako ikastaroak: esku-lanak, arte-jarduerak, tailerrekin zerikusia dutenak, argazkilaritza, dramatizazioa, gorputz- eta kirol-jarduerak, gorputz-adierazpena eta abar: 0,5 puntu.
- d) Informatika-ezagupenak eta IKTen erabilera didaktikoa. 0,5 puntu

3.- IRAKASLE-ESPERIENTZIA gaixotasun kronikoak, nahaste psikiatrikoak edota urritasun larriak dituzten ikasleekin (gehienez 1,5 puntu). 0,1 puntu ikasturte bakoitzeko 0.1 puntos.

Lagunaza-taldeekin esperientzia izatea (gehienez ere 1,5 puntu). Ikasturteko 0,1 puntu

Zuzendari-lanpostuetarako: Zuzendari-taldeetan esperientzia izatea (gehienez ere, 0,5 puntu). Ikasturteko: 0,1 puntu.

4.- MEMORIA (gehienez 3 puntu)

Zuzendari-lanpostuetarako:

Gehienez ere, 10 orri.

- CDTEAren ingurunea: esku-hartzearen deskripzioa eta hezkuntza-zentzua.
- Gizarte- eta hezkuntzako esku-hartzearen helburua. Hartzaileak.
- Esku-hartzearen aldiak: eskaerak jasotzea, erabakiak artesa, proiektua ezartzea....
- CDTEAren langileeen koordinazio-prozesuak
- Esku-hartzeko irakasle-taldeko profesionalen artean esku-hartzeko proiektua prestatzeko prozesuaren proposatzea.
- - Gutxienez puntuazioaren % 50 atera beharko dute izangaiek memorian.

Hospital- eta etxe-eremuko eta terapia- eta hezkuntza-eremuko lanpostuetarako:

Gehienez ere, 10 orri.

- Etxez etxeko eta ospitaleko ingurunea, baita terapia-ingurunea ere eta irakaslan. Esku-hartzearen deskripzioa eta hezkuntza-zentzua. Hezitzailearen profila (zereginak, ezagupenak eta trebetasunak). Gainerako hezkuntza-agenteeikiko lotura.
- Hezkuntzako esku-hartzearen helburua. Hartzaiak.
- Esku-hartzearen aldiak: Eskaria, helburuak, metodologiak eta lan egiteko erak formulatzea, tutoretza-erak, gainerako hezkuntza- eta familia-agenteeikiko elkarlana, ebaluazioa, ohiko ikastetxera iragaitea.
- Irakasle-taldearen esku-hartze prozesua gainerako agenteei begira (komunikazioa eta koordinazioa) prozesuaren fase guztietan.
 - o Ikasleak
 - o Familia
 - o Irakaslearen erreferentzia-zentroa (Zuzendaritza-taldea, tutorea, kontsultore-orientatzailea, irakasle-taldea)
 - o Ospitalea
 - o Bestelako hezkuntza- eta gizarte-eragileak (etxez etxeko esku-hartzea, esku hartzeko beste talde batzuk...)
 - o Hezkuntza-administrazioa.
- Aldi edo fase bakoitzeko protokoloak (eguneroko erregistroak, ...) dokumentu orokorrak (hezkuntza-proiektua, curriculum, memoriak, esku hartzeko eskuliburua, banakako lan-plana, banakako txostena...)
- Hezkuntza-baliabideak: hezkuntza-guneak, lan-guneak, mediateka, hezkuntza-webak, komunikazio telematikoa (ikastetxean: gelako taldea, ikastetxeko beste ikasle batzuk...)
- Esku-hartzeko irakasle-taldeko profesionalen artean esku-hartzeko proiektua prestatzeko prozesuaren proposatzea.
- Gutxienez puntuazioaren % 50 atera beharko dute izangaiek memorian.

5.- ELKARRIZKETA (gehienez 3 puntu)

- Elkarrizketarako deia egingo zaio izangaiari, memoria defendatu dezan.
- Gehienezko puntuazioaren % 50 gutxienez atera beharko dute izangaiek elkarrizketan.
- Memoriari dagokion gehienezko puntuazioaren % 50era iristen diren izangaiei baino ez zaie egingo elkarrizketarako deia.



II. ERANSKINA.

LANPOSTUA ZERBITZU-EGINKIZUNETAN BETETZEKO ESKABIDEA, OSPITALEKO ETA ETXEKO ZERBITZUA EMATEKO ETA TERAPIA- ETA HEZKUNTZA-ARRETAZ ARDURATZEKO LURRALDE- ORDEZKARITZETAKO ZENTROETAN 2007-2008 IKASTURTEAN.

1 DATU PERTSONALAK

<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
1. ABIZENA/ APELLIDO 1	2. ABIZENA / APELLIDO 2	IZENA / NOMBRE
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
N.A.N./D.N.I.	LEZ /N.R.P.	ATALA/GR UPO
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
HELBIDEA / DOMICILIO	P.K. /C.P.	HERRIA /LOCALIDAD
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
LURRALDEA / TERRITORIO	TELEFONOA / TELÉFONO	E-MAIL

2 DATU PERTSONALAK

<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
DESTINOKO IKASTETXEA / CENTRO DE DESTINO	HERRIA / LOCALIDAD	LURRALDEA / TERRITORIO
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
MAILA / NIVEL	IRAKASGAIA / ASIGNATURA	HIZKUNTZA / IDIOMA



3.- Eskabidea. Zuzendari-lanpostuak

<i>Lanpostu-kodea</i>	<i>IKASTETXEA HERRIA</i>	<i>Gurutzea jarri.</i>
ADI1	Arabako CDTEA – Alava.	
BDI1	Bizkaiko CDTEA – Bizkaia	
GDI1	Gipuzkoako CDTEA- Gipuzkoa	

Ospitale-inguruneko lanpostuak

<i>Lanpostu-kodea</i>	<i>IKASTETXEA HERRIA</i>	<i>Gurutzea jarri.</i>
BH4	Bizkaiko CDTEA -Bizkaia	
GH2	Gipuzkoako CDTEA- Gipuzkoa	

Etxeko zerbitzua:

<i>Lanpostu-kodea</i>	<i>IKASTETXEA HERRIA</i>	<i>Gurutzea jarri.</i>
GD2	Gipuzkoako CDTEA- Gipuzkoa	

Terapia- eta hezkuntza-inguruneko lanpostuak

<i>Lanpostu-kodea</i>	<i>IKASTETXEA HERRIA</i>	<i>Gurutzea jarri.</i>
ATE2	Arabako CDTEA -Alava.	
ATE3	Arabako CDTEA -Alava	
BTE4	Bizkaiko CDTEA -Bizkaia	
GTE2	Gipuzkoako CDTEA- Gipuzkoa	
GTE3	Gipuzkoako CDTEA- Gipuzkoa	

Eskabide honetan jasotako datuak egiazkoak direla eta deialdi honetan eskatzen diren betekizun guztiak betetzen ditudala aitortzen dut.

Tokia:		
Data:	Sinadura	Sarrera-zigilua